

Lehengaien prezioa

Urria eurotan: Δ Hiletik hilerakoa =%+3,2; Δ Urtetik urterakoa =%+3,4

Urrian, lehengai metalikoen eta petrolioaren prezioen goranzko joerak jarraitzen du, hala ere maila baxuan mantentzen dira. Azaroan, petrolioaren prezioak beheranzko zuzenketa izango duela dirudi.


Lehengai metalikoen prezioak +%3,2 egin du gora **urrian aurreko hilabetearekiko**, bi hilabetez jarraian beherantz egin ostean. Hala ere, hazkunde honen zati bat euroaren dolarrarekiko balio-galerari zor zaio, **dolarretan** igoera +%1,6koa baita. Hau guztiarekin, **joan den urtearekin alderatuz, +%3,4**ko igoera izan du indizeak **eurotan** eta +%2,6koa **dolarretan**.

Urrian, metal guztien prezioek gora egin dute aurreko hilabetearekiko, bita zelulosaren prezioak ere. Horrela, **aurreko urtearekiko +%36,6** igo da **zinkaren prezioa**, +%29,7 **eztainuarena**, +%12,9 **berunarena**, +%12,1 **burdin-mearena**, +%11,9 **aluminioarena** eta +%1,3 **nikelarena**. Metalen artean, bakarrik **kuprearen** prezioa kokatzen da aurreko urteko mailaren azpitik, %-7,6 azpitik. **Zelulosaren** prezioa ere jaitsi da, %-0,6.

North Sea Brent petrolioaren prezioak 49,01\$/u-eko batezbestekoa lortu du **urrian**, pasa den urteko uztaileko mailaz geroztik (56,48\$/u), altuena. Urtarrilean batez bestekoa 31,10%/u-ko izatera iritsi zen, baina harrezkero, orokorrean, bilakaera gorantz izan da (zuzenketa txikia gertatu zen uztailean). Hala ere, urriaren erdialdean eguneko kotizazioak 50\$/u-eko muga gainditu zuenetik, nolabaiteko zuzenketa jasan du eta ondorioz, azaroan, orain arteko batezbestekoa 44\$/u-en azpitik kokatzen da, azken asteotan eguneko kotizazioak zertxobait gora egin duen arren.

Metalezko lehengaien prezioak

Oinarria 2005=100; hileko datuak



Petrolioaren hileko batezbesteko prezioa

"North Sea Brent"

